# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia | Iruña, 2014ko otsailaren 3a | 20. ZK.

## A U R K I B I D E A

F SAILA:

**Galderak:**

—Galdera, Tuterako San Frantzisko komentu izandakoan kultur etxe bat eraikitzeko Tuterako Udalari emandako maileguari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).

—Galdera, Plazaolaren geltokia zaharberritzeko Leitzako Udalak aurkeztutako proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).

—Galdera, Euskarabideak egiten dituen ikerketa soziolinguistikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).

—Galdera, "osasunerako zentimoa" aplikatzearen ondorioz Foru Ogasunak lortutako diru-bilketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).

—Galdera, 2013ko urriaren 18ko 352/2013 Foru Aginduari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

—Galdera, Nafarroako Gobernuak eginiko zuzemenei buruzkoa, 2014an zehar Julio Caro Barojaren jaiotzaren mendeurrena gogoratzeko ekitaldi-programa bat sustatze aldera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).

—Galdera, Nafarroako Baso Biomasaren I. Feria iragartzeko afixetatik euskara kendu izanaren zergatiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

—Galdera, Etxegabetzeei Arreta Emateko Batzordeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

—Galdera, Haur Hezkuntzako ikastetxeetako titularrak diren toki entitateentzako diru-laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

—Galdera, administrazioko langile elebidunen kopuruari eta hizkuntza eskakizuna duten lanpostuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

—Galdera, Nafarroako Gobernuak zenbait unibertsitaterekin dauzkan lankidetza hitzarmenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

—Galdera, Nafarroako eremu euskalduneko eta eremu mistoko udalen izendapen ofizialei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

—Galdera, pertsona fisikoen eta sozietateen mugimenduei buruzkoa, beren helbide fiskalari dagokionez. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

—Galdera, Nafarroan fundazioen titulartasuneko ikastetxeetako eta ikastetxe erlijiosoetako ikasleen familientzako %25eko desgrabazioak dirubilketan duen eraginari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).

—Galdera, pertsonak eta ibilgailuak lurzoru ez-urbanizagarriko bideetatik iragatea arautzearen gainean Nafarroako Parlamentuak onetsitako mozioa betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).

—Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak 2011n, 2012an eta 2013an artatutako lan istripuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).

—Galdera, 2014rako Aurrekontuei buruzko Foru Lege proiektuko “Laguntza espezializatua” izeneko 544. programari eta “Nafarroako Ospitalegunea” 544000. proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).

**F saila:**
**GALDERAK**

# Galdera, Tuterako San Frantzisko komentu izandakoan kultur etxe bat eraikitzeko Tuterako Udalari emandako maileguari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, Tuterako San Frantzisko komentu izandakoan kultur etxe bat eraikitzeko Tuterako Udalari emandako maileguari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko urriaren 18ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**ERANTZUNA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Manuel Ayerdi Olaizola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Tuterako Udalari emandako maileguari buruz (PES-00152). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariak emandako abenduaren 29ko 465/2006 Foru Aginduaren bidez Tuterako Udalari 12.000.000 euroko mailegua eman zitzaion Tuteran kultur etxea eraikitzeko, eta maileguaren baldintzak onetsi ziren. Mailegu horren baldintzetan aldaketa bakarra egin da, honako foru agindu hau dela medio: urriaren 21eko 41/2011 Foru Agindua, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak emana, hirugarren xedapena aldatzen diona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariak emandako abenduaren 29ko 465/2006 Foru Aginduari, zeinaren bidez Tuterako Udalari 12.000.000 euroko mailegua eman baitzitzaion Tuteran kultur etxea eraikitzeko eta maileguaren baldintzak onetsi baitziren.

Nafarroako Gobernuak ez dio mailegua kitatzeko eskatu Tuterako Udalari.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2013ko azaroan

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

# Galdera, Plazaolaren geltokia zaharberritzeko Leitzako Udalak aurkeztutako proiektuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egindako galderaren erantzuna, Plazaolaren geltokia zaharberritzeko Leitzako Udalak aurkeztutako proiektuari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko azaroaren 22ko 137. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Plazaolaren geltokia zaharberritzeko proiektuari buruz (PES-00196). Hau erantzun du Nafarroako Gobernuko bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Geltoki horretan egin beharreko jarduketa, ongi dakizunez, Nafarroako Landa Garapen Iraunkorrerako 2010etik 2014ra bitarteko Planeko Mendi Atlantikoetako Eremuan sartu zen, izendapen honekin: “Turismorako balioa emateko esku-hartzeak Plazaola trenaren Leitzako geltoki zaharrean”.

Plan hori aplikatzeko hitzarmen arauemailea sinatzeko zegoen Nafarroako Foru Komunitatearen eta ministerio eskudunaren artean. Bai departamentu honetatik bai Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentutik parlamentari andreari jakinarazi zitzaion bezala, 2012ko abuztuaren 8an Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuari adierazi zion abenduaren 13ko 45/2007 Legearen aplikazioa geldiarazi zuela, aldaketa egin nahi zuelako, legea erabilgarriagoa eta aplikatzean eraginkorragoa izan zedin.

Duela gutxi jakinarazi denez, orain arte ministerio eskudunak ez du aldatu Landa Ingurunearen Garapen Iraunkorrerako abenduaren 13ko 45/2007 Legea, eta beraz ezin dira ezagutu ez epea, ez jarduketak egiteko egutegia, ezta finantza-hornidura ere.

Nafarroako Gobernuak beti adierazi eta erakutsi izan du Plazaolaren Bide Berdea berreskuratu nahi duela, eta ildo horretan kokatu behar dira Leitzako geltokiko multzoaren gainean egin diren jarduketa guztiak. Jarduketa horien bitartez, zalantzarik gabe, trenbide zahar berreskuratua inguruko turismo-jardueren ardatz bilakatu nahi da.

Departamentu honek proiektuaren aldeko apustuari eusten dio, baina gaur egun 2012ko aurrekontu luzatuarekin ari gara eta ez dago proiektu horri atxikitako kontusailik, jada onetsita eta Ministerioak egin ditzakeen aldaketen ondoren aplikatzeko zain dagoen Landa Garapen Iraunkorrerako Planean hura sartzeak eragin dezakeena izan ezik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2013ko abenduan

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

## Galdera, Euskarabideak egiten dituen ikerketa soziolinguistikoei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Euskarabideak egiten dituen ikerketa soziolinguistikoei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko azaroaren 22ko 137. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, jakiteko ea Euskarabidea bestelako azterketa soziolinguistikoetan lanean ari den, edo epe labur edo ertainean aurreikusia daukan beste azterlanik egitea (8-13/PES-00192). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak, dagokion erakundeak egindako txostenean oinarriturik:

Azaroaren 23ko 19/2010 Foru Legearen bitartez Nafarroako 2011-2016 Estatistika Plana onetsi zen, eta horren barruan dago euskararen gaineko Nafarroako inkesta soziolinguistikoa egitea. Foru lege hori aplikatuz, Nafarroako Gobernuak 2012ko abenduaren 5eko Erabakian Nafarroako 2012ko Estatistika Programaren jarraipen txostena eta 2013rako programa onetsi zituen, eta han jasorik zegoen euskararen gaineko Nafarroako inkesta soziolinguistikoa egitea. Horrela eman zaio jarraipena 2008. urtean egindako inkestari.

Nafarroako Foru Komunitatean euskarari buruzko inkesta soziolinguistikoa egiteko lanak adjudikatu ziren Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailearen ebazpenez.

Enpresa adjudikazio-hartzailea landa-lana egiten ari da, eta abenduaren 31 baino lehen amaitu behar du. Gero emaitzei buruzko txostena eginen da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2013ko abenduaren 23an

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

## Galdera, “osasunerako zentimoa” aplikatzearen ondorioz Foru Ogasunak lortutako diru-bilketari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, “osasunerako zentimoa” aplikatzearen ondorioz Foru Ogasunak lortutako diru-bilketari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko azaroaren 8ko 128. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko abenduaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**ERANTZUNA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrari atxikitako foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak idatziz erantzuteko galdera egin du "osasunerako zentimoa" aplikatzearen ondorioz Foru Ogasunak lortutako diru-bilketari buruz (PES-185). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Galderari erantzuteko abiaburutzat hartuko da “osasunerako zentimoa” dioenean parlamentari andrea zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zergaren (ZHTSZ) karga-tasa autonomikoaz ari dela.

Diru-sarrera publikoak handitzeko zenbait tributu-neurri ezartzen dituen ekainaren 15eko 10/2012 Foru Legeak arautu zuen tasa autonomikoa. Tasa hori Nafarroako Foru Komunitatean 2012ko uztailaren 1etik aplikatzen da. Gasolinetan eta erabilera orokorreko gasolioetan 24 eurokoa da 1.000 litroko, eta erabilera berezietarako eta berokuntzarako gasolioan 6 eurokoa 1.000 litroko. ZHTSZ hidrokarburoen gaineko zergan sartu zenean haren tasa autonomikoa azken horren tasa autonomiko bilakatu zen. Nafarroan, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 26ko 21/2012 Foru Legearen laugarren xedapen gehigarriaren bitartez arautu zen inguruabar hori. Tasak ez du indarraldi mugaturik; beraz, indarrean egonen da harik eta foru legearen maila duen beste xedapen batek hura aldatu arte.

2012ko ekitaldian, aurrekontu-terminoetan, ZHTSZren hirugarren hiruhilekoko aitorpenetan sortutako tasa autonomikoaren diru-bilketa egin zen, hiru hilean behingo zerga baitzen. Beraz, ezin da hilez hileko informaziorik eman. 4,8 milioi euro bildu ziren. Horri gehitu behar zaio BEZaren bidezko diru-bilketa, kontsumoaren garaian indarrean zegoen tasaren araberakoa (2012ko abuztuaren 30era arte % 18ko tasa eta 2012ko irailaren 1etik aurrera % 21ekoa), hots, hirugarren hiruhilekoko diru-bilketa, aitorpena hiru hilean behin egiten duten erregai-hornitzaileen kasuan, eta uztailetik azarora bitartekoa, aitorpena hilero egiten duten erregai-hornitzaileen kasuan. Nafarroako Zerga Ogasunak daukan informazioarekin ezin da zehatz-mehatz zenbatu "osasunerako zentimoa" dela-eta 2012an BEZaren bidez bildutakoa, baina 1,6 milioi euro izan daitezkeela kalkulatu du.

2013ko ekitaldian, aurrekontu-terminoetan, ZHTSZren laugarren hiruhilekoko aitorpenetan sortutako tasa autonomikoaren diru-bilketa egin da, hiru hilean behingo zerga baitzen. Beraz, ezin da hilez hileko informaziorik eman. 4,5 milioi euro bildu dira. Behin hidrokarburoen gaineko zergan sartutakoan, tasa autonomikoa hilero ordaintzen da eta zerga horretarako ezarritako garaian sortzen da (foru lurraldeko gordailu fiskaletik ateratzean). Urrira arte 5,1 milioi euro bildu dira. Nafarroan kontsumitzekoa beste lurralde bateko gordailu fiskaletik atera duten birbidaltzaileen informazioa ezagutzea falta da. Beraz, oraingoz informazioa ez da osoa. Horri gehitu behar zaio BEZarengatiko diru-bilketa, kontsumoaren unean indarrean dagoen tasaren (% 21) araberakoa, 2012ko laugarren hiruhilekokoa eta 2013ko lehen, bigarren eta hirugarren hiruhilekoetakoa, aitorpena epe horietan egiten duten erregai-hornitzaileen kasuan, eta 2012ko abendukoa eta 2013ko urtarriletik irailera bitartekoa, aitorpena hilero egiten duten erregai-hornitzaileen kasuan. Nafarroako Zerga Ogasunak daukan informazioarekin ezin da zehatz-mehatz neurtu "osasunerako zentimoa" dela-eta 2013ko urrira arte BEZarengatik izandako diru-bilketa, baina 1,4 milioi eurokoa izan daitekeela kalkulatu du.

Erregaien banaketarekin zerikusia duten hainbat zergadunek Europar Batasuneko Justizia Auzitegian aurkeztutako judizio aurreko arazoari dagokionez, Nafarroako Gobernuak abokatu nagusiaren ondorioen berri jaso du gaiaren gaineko eskumena duen ministerioaren bitartez, eta horietan adierazten da ZHTSZk aurka egiten diola Zerga Bereziei buruzko Zuzentarauari, 3. artikuluko 2. idatz-zatia urratzen baitu. Prozesu judizial honek iraun duen bitartean lehen aldiz, abokatuak adierazi du balitekeela Auzitegiak epaiaren atzeraeraginezko efektuak mugatzea, “ondorio ekonomiko larriak sortzeko arriskua” balego. Hain zuzen ere abokatu nagusiak esan du atzeraeragina muga litekeela “nabarmen ikusten bada sortuko diren ondorio ekonomikoak gogorregiak direla, egin den zabarkeriaren aldean”.

Egoera hori dela-eta dagoeneko aplikatu diren neurrien artean aipatzekoa da ZHTSZ kendu dela eta 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hidrokarburoen gaineko zergan sartu dela. Horri dagokionez, gorago aipatu da Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 26ko 21/2012 Foru Legea. Era horretan, araudi berria bat dator Zerga Bereziei buruzko Zuzentarauarekin eta jada ez du urratzen horren 3. artikuluko 2. idatz-zatia.

Etorkizunean hartuko diren neurriei dagokienez, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaiaren zain egon behar dugu zer erabakitzen duen jakiteko; zehazki, ea ZHTSZ, bai Estatuko tartean bai tarte autonomikoan, Zerga Bereziei buruzko Zuzentarauaren aurkakoa zela irizten dion behin betiko, eta ordaindutako kuota bidegabeak zergadunei itzultzeko agintzen duen, atzeraeraginarekin edo atzeraeraginik gabe.

Azkenik, sentitzen dut informazio-eskaera honen izapidetzea atzeratu izana. Birbidaltzaileen gaineko datu berriak jasoz gero informazio hobea eskura egonen zelakoan atzeratu da, baina orain arte ez da hala izan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2013ko abenduaren 23an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

# Galdera, 2013ko urriaren 18ko 352/2013 Foru Aginduari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, 2013ko urriaren 18ko 352/2013 Foru Aginduari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko azaroaren 22ko 137. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko abenduaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 2013ko urriaren 18ko 352/2013 Foru Aginduari buruz (PES-194). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 18. artikuluak agintzen duenez, aurrekontu-betetzeari buruzko datuen jarraipena egin behar da eta gastu publikoa doitu, ekitaldia ixteko garaian aurrekontu-egonkortasunaren helburua beteko dela bermatzeko.

Urriaren 18ko 352/2013 Foru Aginduak ezartzen duenez, aurrekontu-egonkortasunaren helburua urte amaierarako ziur aski desbideratu eginen dela kontuan harturik eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Legearen 18. artikuluan ezarritakoa betetzeko, ezin izanen da gastu-konpromiso berririk hartu honako kasu hauetan izan ezik:

a) Konpromisoen betetzeak 2013ko ekitaldiko finantza-defizitean eraginik ez duenean, Kontabilitate Nazionaleko terminoetan.

b) Haien faltak Administrazioaren funtzionamenduaren funtsezko alderdietan eragina izan dezakeenean.

c) Lege-xedapenen batek agindutakoak direnean, edo foru araua sinatu aurreko administrazio-egintzaren baten ondorio direnean.

Aurrekontu-betetzearen muga horrek, foru araua sinatu zenetik, Administrazioaren nahierakotzat jo daitezkeen gastu-konpromisoak hartzea eragozten du. Beraz, foru arau hori ez da aurrekontu-baliabideak kentzeko agindu bat, zeinean ukitutako kontusailak identifika baitaitezke; aitzitik, itxierako foru aginduaren aurrerapena dela uler daiteke, nahierakotzat sailkatzen diren gastuetarako.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2013ko abenduaren 18an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

# Galdera, Nafarroako Gobernuak eginiko zuzemenei buruzkoa, 2014an zehar Julio Caro Barojaren jaiotzaren mendeurrena gogoratzeko ekitaldi-programa bat sustatze aldera.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Amaya Zarranz Errea andreak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Gobernuak eginiko zuzemenei buruzkoa, 2014an zehar Julio Caro Barojaren jaiotzaren mendeurrena gogoratzeko ekitaldi-programa bat sustatze aldera, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko abenduaren 5eko 142. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**ERANTZUNA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrari atxikitako Amaya Zarranz Errea andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Julio Caro Barojaren jaiotzaren mendeurrenari buruz (PES-00199). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuko bigarren lehendakariorde, bozeramaile eta Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Julio Caro Barojaren jaiotzaren (1914ko azaroaren 13a) mendeurrena dela-eta Kultura Departamentuak hainbat ekintza eginen ditu. Honako hauek dagoeneko hasiak dira:

**“Nafarroa, Lau Urtaroak” erakusketa**

Museoen Zerbitzua aldi baterako erakusketa bat prestatzen ari da. “Julio Caro Baroja” Nafarroako Etnologia Museoak eta Nafarroako Museoak eginen dute batera, eta Nafarroako Museoan kokatuko da. Oraindik ez du data zehatzik; 2014ko irailetik 2015eko urtarrilera bitartean izanen da.

*Navarra, cuatro estaciones* dokumentala da proiektuaren ardatza. Caro Barojak *Navarra, cuatro estaciones* dokumentalean 1970eko hamarkadaren hasieran jaso zuen Nafarroako ondare etnologikoa egungo ondarearekin konparatu nahi da, “Julio Caro Baroja” Nafarroako Museo Etnologikoan azken urteetan grabatu diren dokumentalen bitartez.

Hartara, kultura adierazpenek mende erdian zehar izan duten bilakaera erakutsiko da, baita gure Komunitateko ondare etnologiko eta ukiezinaren gaineko ikerketa eta dokumentazio lanen segida ere. Lan jarraitu horren egungo arduraduna Museo Etnologikoa da, bere sorreran Caro Barojarekin lotura estua izan zuen erakundea.

Ikus-entzunezko edukiez gain –denak Nafarroako Gobernuaren jabetzakoak dira– Museo Etnologikoaren bildumetako piezak erakutsiko dira; horietako batzuk Caro Barojak berak bildu zituen eta denak ongi dokumentaturik daude proiektatuko diren ikus-entzunezko lekukotasunetan.

Erakusketa lau esparrutan banatuko da lau urtaroak irudikatuz, eta Julio Caro Barojaren figurari eskainitako sarrerako atal bat ere izanen du, Nafarroarekin izan zuen lotura eta Foru Komunitateko ondare etnologikoa ezagutarazteko egin zituen ekarpenak nabarmenduko dituena.

Hainbat jende-sektorerentzako jarduerak eta Julio Caro Barojaren obra aztertzen eta zabaltzen lagunduko duten hitzaldien zikloa eginen dira erakusketarekin batera.

**Argitalpen proiektuak**

• Nafarroako Gobernuak argitaratutako Julio Caro Barojaren obren berreskuratze editoriala:

• *Príncipe de Viana* aldizkariaren ale monografikoa (206 zenbakia, 1995ean argitaratua): duela gutxi Interneten jarri da, hainbat web orritan, Julio Caro Barojari buruzko ale berezi horren eduki osoa.

• "La hora navarra del siglo XVIII: personas, familias, negocios e ideas"

• "Navarra, cuatro estaciones"

• "Navarra, tradiciones y costumbres"

• Liburu berri batean Julio Caro Barojaren testu aukeratuak argitaratzea, hark ikertu zituen Nafarroako hainbat alderdiri buruzkoak: historia, pentsamendu-joerak, etnografia, arkitektura eta abar. Nafarroako Gobernuko langileek prestatuko dute antologia.

**Irakurketa-gida**

Liburutegien Zerbitzuak Julio Caro Barojari buruzko irakurketa-gida eginen du Nafarroako liburutegi publiko nagusietan eskura dauden lanen aipamenekin. Gida hori liburutegi publikoetan ego-

nen da eta Interneten bidez zabalduko da, web orriaren eta informazio buletinaren bitartez.

Nafarroako Liburutegian erabiltzaileei eskueran jarriko zaie Julio Caro Barojaren obra. Horretarako "interesgune" bat paratuko da, haren liburu eta ikus-entzunezkoak bertan mailegatu ahal izateko. Eta kontserbazio berezikoak diren obren edizioak beira-arasetan erakutsiko dira.

**Erakusketa ibiltaria**

Erakundeekiko Harremanetarako Zuzendaritza Nagusiak urtero antolatzen duen erakusketa, Espainiako hainbat hiritako nafarren etxe eta zentroetan eta Nafarroako kultur etxe askotan ikus daitekeena, 2014an Julio Caro Barojaren figurari eskainiko zaio haren jaiotzaren mendeurrenean.

Panel handi batzuek osatzen dute erakusketa; egile ospetsuak bere ikerketetan jorratu zituen Nafarroako gaien inguruko argazkiak dira. Argazki horien ondoan egile omenduaren beraren testu laburrak jarriko dira, kasuan kasuko gaiari buruzkoak.

Horrez gain, don Julioren figurari buruzko panel berezi bat izanen da erakusketan, haren testu batekin, eta barojatarren bizitzan hain esanahi sakona izan duen eta baduen Berako Itzea etxea agertuko da beste panel batean.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2013ko abenduan

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

---

## Galdera, Nafarroako Baso Biomasaren I. Feria iragartzeko afixetatik euskara kendu izanaren zergatiari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Baso Biomasaren I. Feria iragartzeko afixetatik euskara kendu izanaren zergatiari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko abenduaren 5eko 142. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Baso Biomasaren I. Feria iragartzeko afixei buruz (PES-00202). Hau erantzun du Nafarroako Gobernuko bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Biomasaren I. Feria sustatzeko erabilitako afixak, iragarkiak eta gainerako informazio-baliabideak gaztelaniaz egin ziren, Nafarroako administrazio publikoetako euskararen erabilerari buruzko araudiak xedatzen duen bezala.

Euskaraz eta gaztelaniaz zegoen afixa Nafarroako Gobernuak publizitatea eta kartelak enkargatu aurretik egindako diseinu bat izan zen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2013ko abenduan

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

---

# Galdera, Etxegabetzeei Arreta Emateko Batzordeari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eloy Villanueva Cruz jaunak egindako galderaren erantzuna, Etxegabetzeei Arreta Emateko Batzordeari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko abenduaren 5eko 142. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**ERANTZUNA**

Parlamentu-talde Popularrari atxikitako foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak idatzizko galdera egin du (PES-00198) Nafarroako Gobernuaren 2013ko otsailaren 6ko erabakiaren bidez sortu zen Etxegabetzeei Arreta Emateko Batzordeari buruz:

– Zer egunetan eratu zen batzordea.

– Gaur arte egindako bileren zerrenda.

– Hartutako erabakiak eta proposatutako neurriak.

– Gobernuaren otsailaren 6ko erabakian aipatzen den jarduketa protokoloaren edukia.

Galderari erantzunez hauxe adierazten da:

Nafarroako Gobernuak 2013ko otsailaren 6an hartutako erabakiaren bidez (2013ko 31. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua, otsailaren 14an) Etxegabetzeei Arreta Emateko Batzordea sortu zen, eta haren osaera eta eginkizunak ezarri ziren, besteak beste. Batzordea eratzeko lehenbiziko bilkura otsailaren 22an egin zen, eta hurrengo bilkurak 2013ko martxoaren 20an eta maiatzaren 25ean. Batzordea lanean ari da Nafarroako Gobernuaren erabakian aipatzen diren helburu eta jarduketa-ardatz estrategikoetan. Honako hauek dira:

• Ukituei aholku ematea Hipoteka Bitartekotzarako Bulegoaren bidez.

• Justizia auzitegiekiko harremanak; arlo horretan, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak hitzarmena sinatuko dute, familia-etxebizitza kentzearen ondoriozko zaurgarritasun-kasuak hautemateko eta gizarte neurriak hartzeko.

• Finantza-erakundeekiko harremanak, hipoteka ordaintzen ez denean egiten diren jarduketak ezagutzeko eta gatazkak konpontzen lagunduko duten neurriak ezartzeko, besteak beste, etxea ordainean ematea. Aurreikusi da, beste aukera batzuen artean, beren etxebizitza ordainean eman ondoren babes ofizialeko etxebizitza alokatzen duten errentariei diru-laguntzak ematea irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren bederatzigarren xedapen gehigarrian azaltzen diren baldintzetan. Horrekin batera, hipoteka-kreditu edo antzekoren baten ordainean emandako etxebizitza babestu bat eskuratzen duten pertsona juridikoak etxebizitza babestuaren titular bilakatu ahal izanen dira, eta horrek ordainean emateak sustatuko ditu hipoteka-betearazpenen kaltetan.

• Zerga-neurriak ezartzea. Parlamentuan izapidetzen ari da Zenbait zerga aldatzeko eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektua. Zuzenketen izapidea bete ondoren eta, duela gutxi Parlamentuaren web orrian argitaratu denez, Parlamentuko batzorde egokitik iragan ondoren, xedapen horrek ondare-gehikuntzaren gaineko zerga ordaindu beharretik salbuesten ditu hipoteka-zordun guztiak, edozein izanda ere haien baztertze-atalasea, betiere subjektu pasiboaren etxebizitza bakar eta ohikoari dagokionez. 2012ko martxoaren 11tik aurrerako ondare-gehikuntzetarako sortuko ditu ondorioak, berdin da nola eskualdatzen den etxebizitza: finantza-erakunde batek sustatutako prozedura judizial baten ondorioz, edo notarioaren bitartez judizioz kanpo egindako salmentan (Hipoteka Legearen 129. artikulua), edo ordainean emanda. Kasu horietan beretan etxebizitza babes ofizialekoa bada, adjudikaziodunek ez dituzte itzuli beharko jasotako laguntzak eta ez dute hirilurren balio igoeraren gaineko zergarik ere ordaindu beharko.

• Behar diren arauak egitea, etxebizitza babestuak alokatzeko kontratuak berritzen direnean erreferentziatzat har dadin, alokairurako laguntzak onartzeari begira, errentamendua berritzeko eskatzen den egunean PFEZaren aitorpena aurkezteko epea amaituta daukan azken zergaldia.

• Bidezain Parkea izeneko foru ondarea aztertu eta ebaluatzea, horrela, haren egoera juridikoa argitu eta kokapen fisikoa baloratu ondoren, hura zaharberritu eta alokairu sozialerako erabil dadin sustatze aldera.

• Behar diren arauak egitea gizarte etxebizitzen foru funtsa sortzeko.

Iruñean, 2013ko abenduaren 19an

Sustapeneko kontseilaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

---

# Galdera, Haur Hezkuntzako ikastetxeetako titularrak diren toki entitateentzako diru-laguntzei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, Haur Hezkuntzako ikastetxeetako titularrak diren toki entitateentzako diru-laguntzei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko abenduaren 5eko 142. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**ERANTZUNA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak idatziz erantzuteko galdera batzuk egin ditu udal titulartasuneko ikastetxeentzako diru-laguntzen araubideari buruz (8-13/PES-00200). Hau erantzun du Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak, dagokion zerbitzuak egindako txostenean oinarriturik:

Atarikoa: bertan azaltzen den kontuari jada konponbide positiboa eman zaio.

1.- Haur Hezkuntzako ikastetxeen titular diren zenbat toki entitate daude (zeuden) egoera horretan?

• 32 toki entitatek eta Atarrabiako eta San Adriango unitate transferitu gabeek (4+2) hartu dute parte diru-laguntzen deialdian.

2.- Zenbatekoa da gaur egun Departamentuak ikastetxe horietako bakoitzari egindako ekarpenaren ehuneko erreala, 79/2012 Foru Aginduan ezarritako irizpideak aplikatuz legokiekeenaren aldean?

Udalek jaso duten ehunekoa, gaur egun, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiaren abuztuaren 8ko 411/2013 Ebazpenaren hirugarren oinarriko a) letran ezarritakoa da. Ebazpen horrek toki entitateentzako diru-laguntzetarako deialdia onetsi zuen, uztailaren 25eko 72/2012 Foru Dekretuaren lehen xedapen gehigarriak aipatzen dituen udal titulartasuneko ikastetxeen kudeaketa 2012-2013 ikasturtean finantzatzeko; 72/2012 Foru Dekretu horrek Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzaren lehen zikloa arautzen du eta hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak zein zikloko hezkuntza arloko edukiak ezartzen ditu. Aipatutako oinarriak diru-laguntzaren zenbatekoa finkatzen du: martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuan –edo uztailaren 25eko 72/2012 Foru Dekretuan, 2012-2013/, 2013-2014 eta 2014-2015 ikasturteetarako– ezarritako baldintzak betetzeagatik finantzaketa-hitzarmenerako eskubidea izan balute zegokiekeen zenbatekoaren % 90.

Hezkuntza behar bereziak dituzten haurrez arduratzen diren langileak finantzatzeko ekarpena, oinarri horretako c) letran ezarritakoarekin bat, diru-laguntzen zenbateko metatuak baimendutako gastua gaindituz gero eginen litzatekeen hainbanaketatik aparte utzi da, izan ere ekarpen hori Hezkuntzako kontseilariaren abuztuaren 27ko 79/2012 Foru Aginduan ezarritako zenbatekoaren % 100 izan baita. Foru agindu horren bidez Hezkuntza Departamentuaren eta toki entitateen artean lankidetza hitzarmenak izenpetzeko oinarriak ezarri ziren, udal titulartasuneko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen kudeaketa finantzatzeko asmoz.

3.- Zein da 411/2013 Ebazpenaren bidez onetsitako diru-laguntzen deialdiko hirugarren oinarriko a) letra aplikatuta onuradun horiei legokiekeen zenbatekora iristeko behar izanen liratekeen funts osagarrien zenbateko zehatza?

Deialdiaren hirugarren oinarriko a) letran aipatzen den ehunekora iristeko 1.340.541, 48 euro gehiago jarri behar izan dira.

4.- Departamentuak ba al du behar den kreditua gaitzeko asmorik, inguruabar hori 2013. urte hau bukatu aitzin bermatzeko?

Dagoeneko gaitu da eta ordaindu da 2013. urte hau bukatu baino lehen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

## Galdera, administrazioko langile elebidunen kopuruari eta hizkuntza eskakizuna duten lanpostuei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, administrazioko langile elebidunen kopuruari eta hizkuntza eskakizuna duten lanpostuei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko abenduaren 5eko 142. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Foru Komunitateko Administrazioko langile elebidunen kopuruari eta hizkuntza eskakizuna duten lanpostuei buruz (PES 201/2013). Hauxe erantzun dio Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilariak:

– Zenbatekoa da Nafarroako Administrazioko langileen artean dauden elebidunen kopurua? Hizkuntza profilaren araberako sailkapena ere eskatuko genuke, departamentuka.

Ezin da jakin Administrazio honetako langileen artean zenbat diren elebidunak, langileei ezin zaielako datu hori eskatu hizkuntza eskakizunen bat ezarria duten lanpostuak betetzeko baizik.

Horri buruz daukagun datua da, zenbat langilek parte hartu duten Foru Administrazioak antolatutako euskarazko prestakuntza jardueretan. Azken bi urteetan gutxi gorabehera 1.100 izan dira urte bakoitzean, eta honela banatu dira departamentuen artean:

| | |
|---|---|
| Lehendakaritza, Justizia eta Barnea | % 13,77 |
| Ekonomia, Ogasuna, Industria eta Enplegua | % 5,39 |
| Hezkuntza | % 8,98 |
| Osasuna | % 50,90 |
| Sustapena | % 1,50 |
| Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Adm. | % 9,88 |
| Gizarte Politikak | % 5,39 |
| Kultura, Turismoa eta Erakunde Harremanak | % 4,19 |

– Zenbat eta zeintzuk dira Nafarroako Administrazioan hizkuntza eskakizuna duten lanpostuak? Horiek ere departamentuka sailkatuta nahiko genituzke.

Euskara jakitea plantilla organikoan betekizun edo merezimendu gisa ezarria duten Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko eta haren erakunde autonomoetako lanpostuak zeintzuk eta zenbat diren eta departamentuen artean nola dauden sailkatuta erakusten duten taulak erantsi ditugu.

Iruñean, 2013ko abenduaren 31n

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilaria: F. Javier Morrás Iturmendi

| Maila | Lanpostua | E | E1 | E2 | E3 | M | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | OINARRIZKO OSASUN LAGUNTZAKO TALDEKO (OOLT) ZUZENDARIA (MEDIKUA) | | | | | 3 | 3 |
| | ERIZAINTZA UNITATEKO BURUA | | | | | 3 | 3 |
| A | HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALEKO KATEDR. | 1 | | | | | 1 |
| A | BIGARREN HEZKUNTZAKO KATEDR. | 18 | | | | | 18 |
| A | OOLT-KO ZUZENDARIA (MEDIKUA) | | | | | 6 | 6 |
| A | BARRUTIKO FAKULTATIBO ESPEZIALISTA/ALBOKOA | | | | | 2 | 2 |
| A | FARMAZIALARIA | | | | | 3 | 3 |
